

---

## PRENTSA OHARRA

---

### **Agurainek herritarrak inplikatu nahi ditu hondakin organikoaren birziklapena hobetzeko erronkan**

Maiatzaren 20tik aurrera, astelehena, atariko bilerak eta etxez etxeko bisitak egingo dira konponbideak azaltzeko eta herritarren ekarpenak jasotzeko.

2024/05/17 Agurain. Hondakinen kudeaketa hobetzeko, eta bereziki, hondakin organikoaren bilketari ekiteko, Aguraingo Udalak parte-hartze prozesu bat jarri du abian. Honekin, etxeko hondakin organikoetatik eratorritako problematika konpondu eta konponbide eraginkorrek martxan jarri nahi dira. Izan ere, EHUK egindako azterlanaren arabera, Aguraingo biztanle bakoitzak urtean sortzen dituen etxeko hondakinen 352kg-tik, %1 baino ez dagokio etxeko hondakin organikoaren gaikako bilketari, nabarmen hobetu daitekeen eta legez ezarritako helburuak lortzen ez dituen ehunekoa – sortutako etxeko hondakin organikoaren % 45 gaika bildu behar da.

Hala, maiatzaren 20tik aurrera, astelehenetik ostegunera, bisitak eta atariko bilerak egingo dira udalerrri osoan, konponbideak azaltzeko eta ideiak eta ekarpenak jasotzeko. Ekarpak horiek bileretan nahiz udal-bulegoetan egin ahal izango dira. Ekainean, Aguraingo Udalak ekarpenak ebaluatuko ditu, emaitzak publiko egingo ditu eta, ondoren, adostutako proposamen bat egingo du, batzar ireki batean azalduko dena. Lan horren ondorioak udazkenean jarriko dira martxan.

Materia organikoaren gaikako bilketa da Agurainen gainditu gabeko gai bat da. Gaur egun, gainerakoen frakzioa biltzeko 81 puntu daude, baina frakzio organikoa biltzeko 19 puntu baino ez daude. Sandra Rodriguez ingurumen zinegotziak azaldu duenez, "egungo gizartearen erronketako bat hondakin organikoen kudeaketa egokia da". Horregatik, Agurain lanean ari da ezarritako helburuak betetzeko, eta, horretarako, herritar guztien parte-hartzea nahi du. Horregatik, "Guk belarria jarri, zuk ekarri!" beste urrats bat da bide horretan, herritarren parte-hartzea hobetzeko.

---

## NOTA DE PRENSA

---

### **Agurain quiere hacer partícipe a la ciudadanía en el reto de mejorar el reciclaje del residuo orgánico**

A partir del lunes día 20 de mayo, se celebrarán diferentes reuniones de portal y se realizarán visitas a domicilio para exponer soluciones y recoger aportaciones de sus vecinos y vecinas.

2024/05/17 Agurain. Con el objetivo de mejorar la gestión de residuos y en especialmente abordar la recogida selectiva de los residuos orgánicos, el Ayuntamiento de Agurain ha puesto en marcha un proceso participativo. Así se pretende dar solución la problemática derivada de los residuos orgánicos domésticos y poner en marcha soluciones eficaces. No en vano, según el estudio elaborado por la EHU-UPV, de los 352kg de residuos domésticos generados al año por cada habitante de Agurain, solamente el 1% se corresponde a la recogida selectiva del residuo orgánico doméstico, un porcentaje manifiestamente mejorable y que no alcanza los objetivos legales establecidos – el 45% de residuo orgánico doméstico generado debe recogerse selectivamente.

Así, a partir del lunes 20 de mayo, de lunes a jueves se realizarán visitas a domicilio y reuniones por todo el municipio para exponer las posibles soluciones y recoger ideas y aportaciones. Estas aportaciones se podrán hacer tanto en las reuniones como en las oficinas municipales. Ya en junio, el Ayuntamiento de Agurain evaluará las aportaciones, hará públicos los resultados para después hacer una propuesta consensuada que se expondrá en una asamblea abierta. Las conclusiones de ese trabajo se pondrán en marcha en otoño.

La recogida selectiva de materia orgánica es la gran asignatura pendiente de Agurain. En la actualidad, frente a los 81 puntos de recogida de la fracción resto, tan sólo existen 19 puntos de recogida de fracción orgánica. Según ha explicado la concejal de medio ambiente, Sandra Rodríguez, *“uno de los mayores retos de la sociedad actual es la gestión adecuada de los residuos orgánicos”*. Por eso Agurain trabaja para conseguir cumplir con los objetivos marcados y para ello quiere contar con la participación de toda la ciudadanía. Por eso, *“Cuéntanos, te escuchamos”* es un paso más en ese camino para mejorar la participación de la ciudadanía.